

**II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****LAUDIOKO UDALA****Behin betiko onespena. 2026rako udal-aurrekontuko kredituak aldatzeko 23/2026 espedientea, kreditu gehigarriak emateagatik**

Laudioko Udalaren Osoko Bilkurak, 2026ko ekainaren 29an egindako ohiko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen 2026rako udal-aurrekontuko kredituak aldatzeko 23/2026 espedientea, kreditu gehigarriak emateagatik.

Espedientea jendaurrean jarri da, 2026ko uztailaren 10eko 78. zenbakiko ALHAOn argitaratutako iragarkiaren bidez.

Kreditu gehigarriak emateagatik 2026rako udal-aurrekontuko kredituak aldatzeko 23/2026 espedientearen hasierako onespena jendaurrean jartzeko arauzko epea igaro eta erreklamaziorik aurkeztu ez denez, espediente hori behin betiko onartu da.

Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 34. artikuluan xedatutakoa betez, aurrekontu aldaketa hori argitaratzen da. Hona hemen, sailkapen ekonomikoaren kapituluaren laburpena:

2026ko AURREKONTUA**23/2026 KREDITU ALDAKETA**

Kredituaren Gehikuntza:

KAPITULUA	AZALPENA	ZENBATEKOA
2	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK	30.000,00 €
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		30.000,00 €

Finantzazioa:

KAPITULUA	AZALPENA	ZENBATEKOA
8	FINANTZA AKTIBOAK	30.000,00 €
FINANTZIAZIOA GUZTIRA		30.000,00 €

Ebazpen hau behin betikoa da administrazio-bidean, eta bere aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da Vitoria-Gasteizen, txandaren arabera egokitzen den Administrazioarekiko Auzien Epaitegian. Horretarako, bi (2) hilabeteko epea dago, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunean zenbatzen hasita.

Laudio, 2026ko abuztuaren 3a

Alkate-udalburua

AINIZE GASTAKA MARTÍNEZ